

ku-ku!

haurrekin hitz egiten hasteko





ku-ku!

haurrekin hitz egiten hasteko



• Argitaratzaileak:

- Abadiño Elizateko Udala
- Abanto-Zierbenako Udala
- Ametx Zornotzako Euskara eta Kultura Zerbitzuetarako Herri Erakundea
- Alonsotegiko Udala
- Arakaldoko Udala
- Arrankudiagako Udala
- Arrietako Udala
- Arrigorriagako Udala
- Balmasedako Udala
- Basauriko Udala
- Bilboko Udala
- Elorrioko Udala
- Enkarterriko Udalen Mankomunitatea
- Erandioko Udala
- Etxebarriko Udala
- Fruizko Udala
- Gamiz-Fikako Udala
- Getxoko Udala
- Gordexolako Udala
- Laukizko Udala
- Leioako Udala
- Lekeitioko Udala
- Lemoako Udala
- Markina-Xemeingo Udala
- Maruri-Jatabeko Udala
- Mundakako Udala
- Orozkoko Udala
- Ortuellako Udala
- Txorierriko Mankomunitatea
- Ugao-Miraballesko Udala
- Uribe Kostako Udalen Zerbitzu Mankomunitatea
- Zaldibarko Udala
- Zeberioiko Udala

- Egileak: **ALKARBIDE, BIZKAIKO EUSKARA ZERBITZUEN BILGUNEA**
EREGI, Euskara eta Komunikazioa

- Lege gordailua: **SS-338/2009** (2. edizioa)
- Inprimaketa: **ORVY**



kaiixo!




Euskara ikasten ari zara eta, oso ondo ez badakizu ere, semearekin edo alabarekin euskaraz berba egin gura duzu? Hementxe duzu horretarako laguntza!

Guraso askoren kezka da hori eta udaleko euskara zerbitzua horren jakitun da. Egoera horretan zaudeten gurasoontzat, edota, beste barik zuen seme-alabekin euskaraz egin gura duzuenontzat, **Ku-Ku** liburuxka argitaratu du udalak, seme-alabekin euskaraz berba egiteko aukera -bakoitzak ahal duen neurrian- izan dezazuen.

Liburuxka lau zatitan banatuta dago hitzak eta esapideak errazago aurki ditzazuen. Hasieran hiztegi labur bat agertzen da, hainbat ataletan banatuta; ondoren, umeekin berba egiterakoan egiten ditugun akats ohikoenak jaso ditugu; eta amaiera aldean, zuen seme-alabekin gozatzeko jolasak eta abestiak aurkitu ahal izango dituzue.

Umetan erraza da euskara ikastea. Lagundu iezaiezu!




¿No sabes euskera o lo estás aprendiendo pero quieres que tu hijo/a aprenda desde pequeño/a?

En el Servicio Municipal de Euskera somos conscientes de la preocupación de muchos padres y madres que aun no sabiendo euskera os gustaría que vuestras/os hijas e hijos lo hablasen. Partiendo de esa base, el ayuntamiento ha publicado **Ku-Ku** con el objetivo de facilitaros una mínima comunicación en euskera con vuestros hijos e hijas -cada cual en la medida que pueda-.


La publicación se divide en cuatro apartados; la primera parte comprende un diccionario donde además de palabras, se incluyen expresiones empleadas para darles de comer, dormirles, etc. Junto al diccionario hemos recopilado algunos de los errores más frecuentes que se cometen al hablar con los más pequeños; y para finalizar os ofrecemos algunos juegos y canciones para disfrutar con vuestras hijas e hijos.

Cuando son niños aprenden con facilidad. ¡Ayúdales!




urkibide

- **HIZTEGIA / DICCIONARIO** 7 orr.
- **Ekintzak / acciones** 8 orr.
- **Izenak eta adjektiboak / sustantivos y adjetivos** 11 orr.
- **Onomatopeiak / onomatopeyas** 14 orr.
- **Gorputz atalak / partes del cuerpo** 17 orr.
- **Senideak / familia** 18 orr.
- **Jostailuak eta tresnak / juguetes y otros objetos** 20 orr.
- **Animaliak / animales** 21 orr.
- **Bazkaltzeko ordua / ¡a comer!** 26 orr.






- **HORRELA EZI / ¡ASÍ NO!** 28 orr.
Zuzentzekoak / *errores frecuentes*
- **HAURREKIN JOLASTEKO / ¡A JUGAR!** 31 orr.
- **ABESTU! / ¡CANTA!** 39 orr.






hiztegia


diccionario





ekintzak *acciones*

- Agur-agur: agur / *adiós*
- Apapan joan | atantzera: kalera joan / *salir a la calle*
- Andi andi: paseatzera joan / *salir a la calle*
- Apatxe | apatx(in): jesarri, eseri / *sentarse, siéntate*
- Arrekonkon, arrelepo: bizkar gainean ibili / *subirle a hombros*
- Bilin-bolaka: txirinbolaka / *dando tumbos*
- Fu egin: putz egin / *soplar*
- Kausk: kosk egin / *morder*
- Kili-kili: kili-kili egin / *hacer cosquillas*
- Kuku egin: agertu eta ezkutatu / *aparecer y desaparecer*
- Kuku egon: ezkutatuta egon / *estar escondido-a, oculto-a*
- Lolo joan: lotara joan / *irse a dormir*
- Lolo: loa hartzea, lo egin / *dormirse*




- Mainak eduki | egin: negar egin / *llorar, protestar, hacer mañas*
- Pa emon | bota: musu eman / *besar*
- Pu pu egin: min hartu / *hacerse daño*
- Tapa-tapa, taka-taka, tipi-tapa: ibili / *andar*
- Txalo-pin-txalo: txalo egitea / *aplaudir*
- Txalo-txalo: txaloa jo / *aplaudir*
- Txasta egin: injekzioa jarri / *poner una inyección*
- Zintz egin: mukiak kendu / *sonarse, quitarse los mocos*
- Zizta: zulatu / *pinchar*
- Zurrut, txurrut: edan / *beber*

Zeuek ere jarri zeuenak! / *japunta tú los tuyos!*

.....

.....

.....



Erabil itzazu. Hona hemen zenbait adibide:

Ponlos en práctica, aquí tienes algunos ejemplos:

- Laztana, joango gara apapan?.... *Cariño, ¿vamos a la calle?*
- Pu-pu egin al duzu? Etorri amaxorengana, polit hori..... *¿te has hecho daño? ¡Ven con ama, cariño!*
- Apatxe aulkian! *¡siéntate en la silla!*
- Eman pa aitatxori..... *dale un beso a aita*





izenak eta adjektiboak

sustantivos y adjetivos

- **Adurtia:** ezpain inguruak beti adurrez bustita dituen haurrari esaten zaio / *baboso-a*
- **Astopotroa, astapotroa:** astotzar / *bruto-a*
- **Barrabasa:** ume bihurria / *niño-a travieso-a*
- **Barrabaskeriak:** bihurrikeriak / *travesuras*
- **Kaka:** 1.- kaka / *caca*
2.- zikinkeria / *suciedad*
- **Kokola:** mamala / *tonta*
- **Kokolo:** 1.- txotxoloa, memeloa / *bobalicón*
2.- txokolatea / *chocolate*
- **Lautxakur, lautxakurren:** katuka, katamarka / *a cuatro patas*
- **Laztana, maitea, bihotza:** umeari deitzeko hitz goxoa / *apelativo cariñoso, corazón, amor*



- Mamarroa, mamua, kokoa, kokomarroa: umeak beldurtzeko / *fantasma, coco*
- Mainoso-a: negartia, negar plantak egiten dituen a / *mañoso-a*
- Musu-merkea: musua edonori ematen diona / *besucón-besucona*
- Okerra: ume bihurria / *travieso-a*
- Pa | patxo-a: musua / *beso*
- Pitxin | pitxintxu: umeari deitzeko hitz goxoa / *apelativo cariñoso*
- Potxingoa: putzua / *charco*
- Pupua: mina, zauria / *dolor, herida*
- Sorgina: bizia, pizpirina / *viva, vivaracha*
- Seine: umea / *niño*
- Tetea, petea: txupetea / *chupete*
- Txaloa: zaplaztekoa / *bofetada*
- Txantxar, mekotxo-a: txikia, eskasa / *pequeñito-a*



- Txarrito: koipeztoa / *guarro*
- Txatxurra: esne hagina / *diente de leche*
- Txetxea: umetxoa / *niño-a*
- Txiribuelta: itzulipurdi / *voltereta*
- Txitxia: okela / *carne*
- Txoria: neskatoari buruan jartzen zaion begizta / *lazo, cinta de adorno para chicas*
- Txorta: koleta, txirikorda / *coleta, trenza*
- Umemoko: ume-umea / *crío-a*

Zeuek ere jarri zeuenak! / *japunta tú los tuyos!*

.....

.....

.....

.....

.....



onomatopeiak *onomatopeyas*

- Atxis: *doministiku / estornudo*
- Burrun-burrin: 1.- autoa edo bestelako ibilgailuak / *coche o cualquier otro vehículo*
2.- trumoia / *tormenta*
- Dan-dan-dan: *atea ozenki jo / tocar la puerta con energía*
- Dar-dar: *ikara / miedo*
- Dillin-dalan: *kanpaiaren soinua / sonido de las campanas*
- Dinbi-danba: *kolpeka / dando golpes*
- Dingilin-dangalan: *herrenka dabilen umetxo / niño-a que camina aún inseguro-a*
- Et-et-et: *ez, ez / no, no*
- Fu: *sua / fuego*





- Fu-fu: erre / *quemar*
- Kili-Kolo: erortzeko zorian / *suelto, a punto de caerse*
- Kisk-Kask: artaziekin moztu / *cortar con tijeras*
- Krak: hautsi / *romperse*
- Mau: haginkada / *mordedura, mordisco*
- Parrast egin: likidoa isuri / *derramarse un líquido*
- Plast eman: zaplaztekoa, belarrondokoa / *bofetada*
- Plausta: zerbait jaustean ateratzen den soinua / *ruido que se produce cuando cae algo*
- Plisti-plasta, txipli, txapla: uretan ibili, bainatu, ur azalean kolpeak ematea / *onomatopeya del chapoteo*
- Po-po: bozina / *bocina*
- Punba egin | punba(la) egin: jausi / *caerse*
- Purrut: puzkarra / *pedo*
- Tarrat: jantziak puskatu / *rasgarse la ropa*
- Tas-tas: ipurdikoa eman / *pegar en el trasero*



- Tilin-talan: 1.- kulunka aritzea / *columpiar*
2.- kanpaiaren soinua / *sonido de campana*
- Tipi-tapa: oinez ibili / *andar*
- Tirrin-tarran: dandarrez, narras ibili / *arrastrarse*
- Tirrin-tirrin: tinbrea / *timbre*
- Tok-tok: atea jo / *tocar la puerta*
- Trakatan-trakatan: zaldizka / *al trote*
- Tuju-tuju: eztula / *tos*
- Txirrist egin: irrista egin / *resbalarse*
- Txis-pun: suziriak / *cohetes*


Zeuek ere jarri zeuenak! / *japunta tú los tuyos!*

.....

.....

.....

.....



gorputz atalak

partes del cuerpo



- Kika: hortza, hagina / *diente*
- Popa: ipurdia / *culo*
- Popolina, potxolina, larrosatxua: alua / *rayita, vagina*
- Tirrina: zilborra / *ombligo*
- Titia: bularra / *pecho*
- Txatxurra: esne-hortza / *diente de leche*
- Txillbitua, txistua: zakila / *pitilín, pene*

Zeuek ere jarri zeuenak! / *japunta tú los tuyos!*

.....

.....

.....

.....




senideak *familia*



- Ama: *mamá*
- Aita: *papá*
- Anaia: *hermano de chico*
- Ahizpa: *hermana de chica*
- Arreba: *hermana de chico*
- Neba: *hermano de chica*
- Neba-arrebak: *hermanos de
chica y chico*
- Izeko: *tía*
- Osaba: *tío*
- Lehengusua: *primo*





- Zeuek ere jarri zeuenak! / ¡apunta tú los tuyos!**





jostailuak eta bestelako tresnak *juguetes y otros objetos*

- Andrakila, kopina: panpina / *muñeca*
- Dilin-dalan: kanpaia / *campana*
- Din-dan: zibua / *columpio*
- Po-poa: kotxea / *coche*
- Pun pun: tiroa, eskopeta / *tiro, escopeta*
- Tik-tak: erlojua / *reloj*
- Tilin-tolon: zintzarria / *cencerro*
- Txin-txin: dirua / *dinero*
- Txirrista: txirrista / *tobogán*
- Zinbulu-zanbulua: zibua / *columpio*

Zeuek ere jarri zeuenak! / *japunta tú los tuyos!*



animaliak *animales*

- **Arre-arre:** astoa; astoak, zaldiak aurrera egiteko onomatopeia / burro; onomatopeya para que el burro o caballo avance
- **Au-au, uau-uau, guau-guau, ba-bau:** txakurra edo txakurraren zaunka/ perro o el ladrado del perro
- **Bee, bekereke:** ardia edo egiten duen soinua / oveja o el balar de la oveja
- **Bis-bis, pis-pis, mis-mis:** katuari dei egiteko onomatopeia / onomatopeya para llamar la atención de los gatos
- **Kir-kir, txirritxirria:** kilkerra / grillo
- **Kli-klo:** zapoa edo egiten duen soinua / sapo o el sonido que produce
- **Kokoroko:** oiloa edo egiten duen soinua / gallina o el sonido que produce
- **Krua-krua:** igela edo egiten duen soinua / rana o el croar de la rana





- Kua-kua: ahatea edo egiten duen soinua / *pato o el sonido que produce*
- Ku-ku: kukua edo egiten duen soinua / *cuco u el sonido que produce*
- Kukurruku: oilarra edo egiten duen soinua / *gallo, canto del gallo*
- Kurrin-kurrin: txerria, txerriek egiten duten zarata / *cerdo, gruñido que hacen los cerdos*
- Miau: katuaren soinua / *el maullido del gato*
- Mixinoa, pitxitxia: katua / *gato*
- Mu: behia / *vaca*
- Muuu: behi orroa / *mugido*
- Pipia: oiloa edo edozein hegazti / *gallina, pájaro, ave en general*
- Purrak: oiloak / *gallinas*





- Tomaki: txakurra uxatzeko hitza / *expresión para ahuyentar a los perros*
- Totoa: txakurra / *perro*
- Trakatan-trakatan: zaldia / *caballo*
- Txio-txio: txoria edo haren kantua / *pájaro o el canto del pájaro*
- Uxa: oiloa uxatzeko erabiltzen den hitza / *expresión para ahuyentar a las gallinas*
- Zapi: katua uxatzeko hitza / *expresión para ahuyentar a los gatos*



Zeuek ere jarri zeuenak! / ¡apunta tú los tuyos!



esamoldeak *expresiones*

Hona hemen gure umeekin erabiltzen ditugun zenbait esamolde, bazkaltzeko orduan, lo egiterakoan... Erabil itzazu, ikusiko duzu nola erantzuten duten. A, gogoratu! besteren bat entzuten baduzu gehitu zuk zeuk!

He aquí algunas de las expresiones más utilizadas a la hora de comunicarnos con nuestros pequeños y pequeñas, a la temida hora de comer, al dormir..., útilízalas, ya verás cómo responden. ¡Y si escuchas alguna más, apúntala tú misma/o!

ez harrotu!.....¡no te pongas gallito-a!
esan-txarrekoa halakoa!.....¡desobediente!
esanekoa bera!.....¡qué obediente!
bai esanekoa!
ez izan astoa / taketa / kirtena!.....¡no seas bruto-a!
betondorik / betozkorik ez jarri!.....¡no frunzas el ceño!




pufff, hatsa!.....¡que mal huele!
ipurdiko galanta hartu du!.....¡se ha dado un buen culetazo!
garbitu beterreak!.....¡quítate esas legañas!
egin zintz!..... ¡suénate los mocos!
badago musutxurik niretzat?.....¿me das un besito?
zatoz hona polit hori!.....¡ven aquí mi vida!
etorri amaren altzora!.....¡ven al regazo de ama!
atzekoz aurrera jantzi duzu nikia!...te has puesto el niqui del revés
(lo de atrás para adelante)
azpikoz gainera jantzi duzu nikia!.. te has puesto el niqui del revés
(lo de dentro hacia fuera)
ortozik ez ibiltzeko ba!.....¡que no andes descalzo-a!
egongo ote zara geldil!.....¿pararás quieto-a?
zer duzu, ba?.....cuéntame qué te pasa



bazkaltzeko ordua! *¡a comer!*

- Bapo | papo: amaitu dela esateko / *para expresar que ha terminado*
- Mama: ura edo beste edozein likido / *agua o cualquier otro líquido*
- Nenea: esnea / *leche*
- Ñan-ñan, nan-nan: jan / *comer*
- Papa: ogia / *pan*
- Txitxia: haragia, okela / *carne*
- Kokoa, Kokoloa: txokolatea, gozokia / *chocolate, golosina*
- Txatxa, xaxa: fruta / *fruta*
- Mau-mau: jatearen onomatopeia / *onomatopeya acción de comer*
- Dranga-dranga: edan / *beber*





esamoldeak

expresiones relacionadas con la comida

- Ogia okerreko (kontrako) zulotik joan zait.....*me he atragantado con el pan*
- Korrokadarik ez bota mahaian.....*¡en la mesa no se eructa!*
- Zurrustadarik egin barik edan!..... *¡no sorbas al beber!*
- Jan ganoraz!.....*¡come como es debido!*
- Mizkina zara gero!...*mira que eres melindroso-a (de mal comer)*
- Saloegi jaten duzu gero!.....*comes que lo devoras todo (apresuradamente)*
- Papo egin, e?.....*termínatelo, ¿vale?*





horrela ez!

iasí no!



Hona hemen gaztetxoekin egin ohi ditugun akatsik behinenak, saiatu zuzentzen!

A continuación os mostramos algunos errores frecuentes que cometemos a la hora de hablarles en euskera a los niños/as. Corrígelos....



Erdarazko egiturak baztertu / *no utilices formas del castellano*

EZ



BAI

- A lolo joango gara?**Lo** egitera joango gara?
- ¡Qué rico!.....**Bai** gozoa! Ze gozo!
- Umearen zorionak dira.....**umearen** (urtebetze-) eguna da
- Mikelek jo egin dit.....**Mikelek** jo egin nau
Mikelek ostikada eman dit
- Nik de fresa gura dut...**fresazkoa** edo mailukizkoa (mailu-
kiduna) gura dut
- Laztana bota siesta!.....**laztana** egin lo kuluxkatxo
- ¿te gusta el gorria?.....**gorria** gustatzen zaizu?



Erdarazko txikigarririk ez erabili:

No utilices diminutivos del castellano



- Egingo dogu lolitos? lo egingo dugu?
- Hartu txupetito/bolsita hartu txupetetxua/poltsatxoa

Hitzei -a artikulua jarri:

No olvides poner el artículo -a



- Jango duzu bokadilo? jango duzu bokadiloa?
- Gura duzu yogur?.....gura duzu jogurta?



haurrekin jolasteko *juega con ellos/ellas*




laztana, jolasean egingo dugu?
¿a qué quieres jugar?

Egingo dugu ezkutaketan?.....¿Jugamos al escondite?
Harrapaketan ibiliko gara?.....¿Jugamos a pillar?
Egingo dugu futboleant?.....¿Jugamos al fútbol?





atzamarren abentura





Honek egurra
bildu zuen...



Honek sua
piztu zuen...




33



Honek janaria
erosi zuen...



Honek janaria
prestatu
zuen...






Eta potolo-potolo
honek dena jan zuen...



35



Umeari hortza erortzen zaionean *(cuando se le cae un diente de leche)*





Esne-hortza (txatxurra) burkoaren azpian itxi edo teilatura bota eta hauxe esan:

Dejar el diente de leche debajo de la almohada o lanzarlo al tejado y recitar lo siguiente:



**Maritxu teilatuko
gona gorriduna
eutsi hagin zaharra
eta ekarri barria**







Ikusi makusi

Juego del veo-veo

Ikusi makusi
zer ikusi?
hasten da, hasten da...
u letraz
umea!



37





Zotz egitekoak Para rifar

Dona dona katona
Sutondoa aitona
Lepotik behera kutuna
Atera kanpora neska-mutil tuntuna

Don don, kikilimon,
sarrakuke, sarramon,
pike pike, tortolike,
ban bu, sirre keta, ke, bu.





abestu! icanta!





Pintxo, pintxo
gure txakurra da ta
Pintxo, pintxo
bere izena du
zuri beltza da ta
ez du koska egiten
begi bat ixten du
jolastu nahi badu



Arre arre mandako



Arre arre mandako
bihar Tolosarako
etzi Iruñarako
handik zer ekarriko?
zapata ta gerriko!
hauek zeinentzako?
zuretzako!





Ran roberra



Uztaia gora gora
lurretik zerura
orain alde batera
ta gero bestera
ta behera, behera, behera
ta behera behera bai
uztai barruan preso
gelditu naiz orain
ran roberra po, po, po, po, po, po, po, po
ran roberra po, po, po, po, po, po





Umea altzoan dagoela abesteko

Canción para cantar con el niño-a en el regazo:



Din dan
nor hil da
Peru zapataria
Zer egin dau pekatu
auzoko txakurra urkatu.
Hori baino ez badau egin
beharko jako
par-ka-tu





txalo pin txalo



txa lo pin txa lo txa lo ta txa lo ka tu txo a miz pi ra



gai ne an da go ba da go be go be go ba da go



noren za pa ta txu a ri be gi ra da go

txalo pin txalo


txalo ta txalo

katutxoa mizpiraren gainean dago

badago bego bego badago

noren zapatatxuari begira dago





Eragiozu



Eragiozu eskutxuari
behin batera
ta gero bestera



kinkirrinera



ala kinkirrinera

ala xamurrera

"haurraren izena" plaza berriko

jira hadi beste aldera



Abesti horien bertsioak liburuxkari erantsitako CDan entzun ditzakezue. Gainera, umeentzako beste abesti apropos batzuk aurkitu ahal izango dituzue honako CD hauetan:

Las versiones de dichas canciones las podéis escuchar en el CD que acompaña a la publicación. Además, podréis encontrar más canciones infantiles en los siguientes CDs:



Izena: Bolona-molona

Egilea: Imanol


Argitaletxea: Elkar



Izena: Xixupika

Egilea: Txirola Mirula

Argitaletxea: Elkar



Izena: Doctor Do Re Mi

Egilea: Oskorri

Argitaletxea: Elkar



Izena: Gure mundu txikitik

Egilea: Gure mundu txikitik

Argitaletxea: Elkar



Izena: Egizu lo (Iotarako kantak)

Egilea: Elkar

Argitaletxea: Elkar



Izena: Bulun bulunka

Egilea: Olatz Zugasti

Argitaletxea: Elkar



Izena: Behin bazen

Egilea: Koldo Amestoy
Bixente Martinez

Argitaletxea: Elkar



Izena: Gurekin hegan

Egilea: Txirri, Mirri eta Txiribiton

Argitaletxea: Elkar



Izena: Haur jolasen
abestiak III
Egilea: Haur jolasen
abestiak
Argitaletxea: Xangorin



Izena: Irrien laguna
Egilea: Pirritx eta Porrotx
Argitaletxea: Katxiporreta



Izena: Kukuketan
Egilea: Xirula mirula
Argitaletxea: Elkar




Izena: Urrezko giltza 1
Egilea: Urrezko giltza
Argitaletxea: Erein



Izena: Txikia izanik...
Egilea: Hainbat
Argitaletxea: Elkar





Gai honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero honako liburu hauetan aurki dezakezue:

Si queréis ahondar más en alguno de estos temas podéis consultar la siguiente bibliografía:

- *Haur hizkera*. Joseba Aurkenerena, Covadonga García, Jon Zelaia (Gero argitaletxea).
- *Ahozko literatura: genero txikiak*. Hainbat idazle, Gauontza sorta. Labayru ikastegia.
- *Ume hizkuntza eta lexikoa*. M^{re} Eugenia Markaida.
- *Umeen berbak direla eta*. Iñaki Gaminde.
- *GALDEZKA* liburuaren atal bat: *umeen kontuak* (IVAP).
- *Betiko jolasak*. Oiartzungo Udala.
- *Ume txikientzako kantu eta jolasak*. Bergarako Udala, 2001.
- *Kukuketan, jolaserako kanta*. Xirula-mirula, 2005.
- *Kantu eta jolasak*. Debagoieneko mankomunitatea, 2005.
- *Euskal jolasen bilduma (I eta II)*. Urtxintxa eskola.



